

egunekoa

J. Alberto Muñoz Zufia

(EAE-ANV-ANBko kidea)

Iragarritako hauteskunde deskalabru baten kronika

Dezeplioa eta amorrua eragin dizkit ezker abertzaleak izandako hauteskunde emaitzak. Nahiz eta gertatutakoaren lehen ikuspegi batean aldi berean azpimarratu behar espainolismoaren eta Espainako Gobernuak (PSOE-ren laguntzarekin beti) botatako hordagoren porrota. Ezin dugu, hala ere, ezikusiarrena egin gure hauteskunde deskalabruaren aurrean. 80.000 bozken galera.

Entzun eta irakurtzen dudaren arabera, ematen du gure kolkorako kontsolamendua zera dela, bozka abertzaleak bozka espainolistari ateratako tartea. Baina geronek ezin dugu abertzalegoaren garai-pen hau gure porrota, eta porrota eragin duten arrazoiek estaltzeko erabili. Ezin dugu EAJ-EAri joan zaizkigun 80.000 bozka horiek bidaltzen diguten mezua ardura bizkarreratu, horren arabera jokatzeko eskatuz. Dugun lehendabiziko lana zera da, bozka galera honek zer erran nahi digun ulertzea. Ea beldurrezko utila edo zigor botoa den. Ezin dugu gure burua engainatu gure mezuetan erranez askatasunaren prozezuaren gidariak garel, gertatutakoa enbata edota udako ekaitz baten ondorioa balitz. Errealitate gordina zera dugu, hauteskunde hauek ahultasun egoeran utzi gaituztela beste indar politikoeekin mintzatzeko orduan, eta bereziki edozein negoziazioaren aurrean.

Nire ustez premiazkoa dugu azken garaiotan jarraitutako lerro politikoaren azterketa sakona. Baina ez soilik EH/HB mahai nazionalaren eskutik, baizik eta ezker abertzalea osatzen dugun erakunde eta talde guztien aldetik. Eta horrela, autokritika sakon bati aurre egin. Ez nuke nahi

nire hitzak zentzu okerrean hartzerik. Ez naiz ari dimisioez eta kargu aldatzeaz. Are gutxiago lerro hauek idazten duena ontzia utzi behar duela esanez. Eskatzen dudana zera da: autokritika eta gogoeta.

Nire aburuz akatsa aspalditik dator. Garai batean hauteskundetan aurkeztzen ginen, baina ez ginen erakundeetara joaten, gero, orde, bai. Beste une batean abstentzioarako deia egiten dugu. Itunak apurtzen dizkigutenean eta gobernu akordioetatik bota, alde egiten dugu, ez erakunde guztietatik orde, baizik eta bakar batetik. Gainera, ez diogu aurre egin beldurraren eta bozka utilaren mezuari, hori bai, gure mezua dialektikoki osatu bezain korapilatsua aireatuz. Beti dago arrazoiren baliagarri bat gaurko ezetza eta biharko baietza jendeari adierazteko. Gure oinarri sozialak eta gure bozka emailek ulertu eta jarraitu ohi gaituzte. Baina ez, oraingo honetan ez. Zirkuloaren kuadraturaz aritzea izan da. Ez gaituzte ulertu eta ez gaituzte jarraitu.

Amorrua esaten nuen aurreneko lerroetan. Amorrua zeren eta iragarrita zegoen. Duela hilabete eta erdi Eusko Abertzale Ekintzaren batzorde eragileak gutun bat bidaltzen dio Mahai Nazionalari, dugun hondamen arriskuaren berri emanez. Ezker abertzaleko munta handiko buruzagiekin izandako bilera batean zera iragarri genien: HB/EH-k zeraman lerro politikoa 40.000-50.000 bozken galerarekin bukatzeko traza bazuela (azken hau esaten dut soilik informazio gisa). Baina hura esaten genuenok EAE-ANV-kook ginen. Jakina, «lau katu dira eta gainera danborrik gabe». Gauzak aurreikusten jakinez gero, posiblea zen galeraren zati handi bat geratzea.

Eleberri eta film ospetsu horren karira zera deitu genezake egoera: «Iragarritako hauteskunde hondamendi baten kronika».

Estrategiek bide erratu batean barna eramane gaituzte. Kanpainan emandako burujabetzaren aldeko mezu zentrala denok onartua bada ere, ez dio eman erantzunik Baskongadetako abertzalegoaren zalantza nagusiari, hots: zer gingo genuke Espainarrak, Mayor Oreja buru zutela, EAEko erakunde jabeak egiteko zorian egonez gero? Gure mezua berandu heldu da, eta anbigua eta kontraesankorregia izan da «beldurraren bozka» efektua gertatzeko. Kanpaina erdian esaten dugu lehen dakariaren inbestidurara joango garela. Handik egun gutxira mezu bat igortzen diogu Mayor Orejari esanez ez dugula ametituko bere hautaketa. Azken egunean mitin batean zera adierazten zaio Ibarretxeri: ea zergatik esaten du ez dituela gure bozka ametituko geronek ez baldin badugu sekula esan bera bozkatzeko asmoa dugunik. Anbigotasun argia. Kalkulatua?

Guzti horren eta beste askoren inguruan gogoeta egin behar da, zeren eta zalantza bat datorrik burura. Hondamendi honetara ekarri baldin bagaituzte gure estrategiek, nora garamate Batasuna prozezuaren diseinu zein moduek? Kontuan hartzen indarrak batzeko baino sakabanatzeko prozesua dirudiela. Gauza hauei erantzun behar diegu denon artean argi, garbi eta bete-betean asmatuz. Asko galdu dezakegu hausnarketa eta diagnostiko okerra egiten badugu, jokoan dagoena asko baita. Burujabetzaren aldeko prozesuaren motorra izan behar den ezker abertzalearen urtetako atzerapen bat, hain zuzen.

zutabea

Iban Zaldúa

Ogia besapean

Goizeko hiru eta erdiak ziren. Lana nuen hurrengo goizean, baina Arantzak ukalondoarekin jo ninduen, ohi duen bezala: gupidarik gabe. «Ez duk entzuten, ala? Negarrez zegok berriro ere. Duela gutxi eman zioat biberioa: ezin duk gose egon, beraz. Badakik zer egin behar duk».

Nik Arantzari esaten nion horiek ez zirela intziriak, Maddik apenas egiten zuela negar, soinu horiek beste zerbait izan behar zutela, pasako zitzaiola. Baina Arantzarekin ez dago negoziatzerik. Aurreko gauetan bezala, haurra lepoan hartu eta telebista aurreko besaulkian eseri nintzen. Bolumena baxu-baxu jarri, eta hantxe geratzen nintzen, loak Maddi hartzen zuen arte.

Baina egun horretan, telebista piztu bai, baina soinua kendu nuen, eta irudiak ikustera mugatu nintzen. Eta orduan entzun nuen. Umearen ustezko zotinak ez ziren negar-hotsak, letania estrainio bat baizik: «peneubeogeitaamarupepeemeretzipeseeamairu...». Ezin nuen sinetsi. Behin eta berriro errepikatzen zuen. Legebiltzarrerako hauteskunde emaitzak ziruditen: baina lau egun falta ziren maiatzaren 13rako!

Hurrengo goizean, halakoetan parte hartzea gustatzen ez zaidan arren, lantegiko porran dirua jarri, eta nire iragarpena idatzi nuen arbelean: «PNV 33, PP 19, PSE 13...». Aurpegira egin zidaten barre lankideek. Bost mila duro pasatxo lortu nituen horrela. Hurrengo gauetan minutu bat galdu gabe altxatu nintzen umea lasaitzera. Ez nuen beti ulertzen murduskatzen zuena, baina egun batzuk geroago Liverpoolek Alavesi bost eta lau irabaziko ziola entzun niola uste izan nuen. Niri futbola ez zait interesatzen, baina banekien zein tabernatan egiten ziren apustuak: pare batera joan nintzen. Zer esanik ez, taberna horietan ere irribarre zabal batez onartu zuten nire iragarpena. Ez zuten halako aurpegiarik jarri partidaren biharamunean.

Egun hauetan Maddik Iberdrola eta BBVri buruzko zer edo zer xuxurlatzen ari dela uste dut, erabat ziur ez nagoen arren. Baina egunkarietako burtsa informazioa arretaz aztertzen ari naiz. Badaezpada.

seiko urrea

Gaizka Aranguren



Pistolak eta pistolak

Ibarretxeren erranetan, ezin da EHren harreman politiko sakonik ukan ETArek bortizkeria salatzen ez duen bitartean. Arzalluzen erranetan, pistola kopuruak balio ez duelako, boto kopuruak baizik. Arnaldo Otegi dioenez ulergaitza da Ibarretxeren argudioa. Honen irudikoz onartezina da arrazoi horrengatik EHri ezetz erratea eta, orde, inolako arazorik ez izatea «herri honen eskubideak errespetatzen ez dituztenekin» gobernu osatzeko.

Otegi aipatzen duena baino askoz ere kontraesan gordinagoa da EAJk inolako arazorik gabe defendatzen duena. Izan ere, pistola kopuruei begira, ez da hain zuzen ere, EHk salatzen ez duen erakunde ar-

matua pistola gehien dituen (baliteke, baina biziki zaila litzateke). Pistola gehienak, bonba gehienak, liberatu gehienak (benetako mertzenarioak kasu honetan), PSOEk lehen eta PPk orain kudeatu eta gidatzen dituzten erakunde armatuen eskutik daude (RPR-UDF-PSFren kasuan bezala). Eta bitarteko bortitz horiek, Konstituzioaren aginduz, mandatu legala daukate erabiliak izateko «lurralde batasunaren apurketa ekiditeko».

Guardia Zibila, CRS, Polizia, Jendarmeria eta bi estatuetako armadak, ETA baino handiagoak dira, pistola gehiago daukate, eta aldera ezineko bortizkeriarako gaitasuna. Baina ez dira horiek, Nafarroa Osoan, ETA baino handiagoak diren bakarrak.

EAJk berak Gasteizko gobernutik gidatu eta kudeatzen duen erakunde armatu legalak, zalantzarik gabe, ETAk baino pistola gehiago baditu. Beraz, ez da afera kuantitatibo hutsa.

Argudioak bertze hauek izan daitezke: ETA da 2001. urtean, argudio politikoak erabiliz, hil duen erakunde armatu bakarra. ETA da azken urteotako hilketa politiko gehienegilea. ETA da indarrean dagoen legeritik at dagoen erakunde armatu bakarra. Are gehiago, ETA da egungo legeriaren aurka bortizkeria erabiltzen duen erakunde armatu bakarra. Horrek ez du erran nahi, Estatuaren biolentziaren monopolioaren babesean, lehenago aipatu ditugun erakunde armatuek hil ez dutenik edo bortizkeria erabiltzen ez dutenik. Ez eta gutxiagorik ere.

EAJk ez du inoiz arazorik izan legezko erakunde armatu handien kudeatzaile politikoei eta ezlegezko erakunde armatuen sortzaileekin elkarriketatuta, negoziatuta, itunak egin eta gobernu osatzeko.

kornerra

Mikel Elorza

Adibideak

Gure sukaldean indarraren adibide, Elena Arza keke jaso du Sukaldari Gazte onenaren saria. Poztu nintzen beragatik, baina pena eman zidan saria jaso eta ETBri gaztelaniaz hitz egin zuelako, eta pentsatu nuen aitzak zartaginen hizkuntzaz gain bertzerik ere erakutsi ahal ziola. Berak ikasi, jakina. Ez dut kasua epaituko, ez dut ezagutzen, eta zinez diot pozten naizela sari-tuagatik («barkatu» esanez hasi zen). Baina azkenaldian sumatzen duen erlaxazioaren etsenplu gisa balio du. Irudipena dut hizkuntzarekiko sentiberatasuna ahul dabilkigula, eta osagarririk gabe deus ez diren egituren bizkar utzia dagoela berreskurapenaren borroka. Kanpaina eta ondorena ere ez da adibide txarra. Hizkuntza bat ez da galtzen... topiko poetikoa egiazkoa da, eta segida ere erraza du: alegia, hizkuntza ez dela berreskuratzen dakitenak tematzten ez badira.